

PRENTSA-OHARRA**BGPk Bilboko Metroaren Aginte-Mahaiko pantailak aldatuko ditu**

Bilbon, 2015eko apirilaren 21ean

Bizkaiko Garraio Partzuergoaren (BGP) kontseilua Bilbon batzartu da gaur eguerdian. Bilera horretan, Bilboko Metroaren Aginte-Mahai Nagusiko pantaila-sistema berritzeko kontratazio-espeditentea onetsi du, hiri inguruko trenaren 'garuntzat' jotzen den osagaia epez epe modernizatzeko egitasmoari doakionez. 50na hazbeteko 18 moduluk osatzen duten 'videowall'a hornitzeko lehiaketa aterako du BGPk, eta horien irteerako prezioa 259.545 eurokoa izango da (BEZ barne).



Kontratua eskuratzen duen enpresak hornidura adjudikatzen denetik aurrera zenbatu beharreko 6 hilabeteko epealdia izango du pantailak hornitu eta instalatzeko. Pantaila horiek LED teknologia izan beharko dute oinarri, teknologia horrek goi mailako prestazioak baititu (erresoluzioa, erresilientzia, mantentze baxua...), eta energiaren kontsumoa ere aski gutxiarazten baitu.

Egungo 'videowall'a eratzen duen pantaila-multzoa (2005. urtean instalatu zena) etengabe erabiltzen dute Bilboko Metroko beharginek eguneko 24 orduetan eta urteko 365 egunetan. Hamar urte -75.000 ordu baino gehiago- etenik gabe funtzionatzen egon ondorik, pantailok euren bizitza erabilgarriaren amaierara iritsi dira, euren jardunean betiere trenbide-lineen irudikapena erakusteari utzi gabe, sareko mapa batean seinaleen, trenbideen okupazioen edota trenen kokapen zehatzen xehekapen doiak hutsik egin gabe emanaz. Pantaila etzan erraldoiak hainbat konbinazio egiteko aukera ematen du; izan ere, besteak beste, instalazioen benetako irudiak sartzeko aukera ere ematen du, eta bai une oro ustiapenaren egoera zehazten duten zenbait grafismo ere.

Pantailen berritzea Bizkaiko Garraio Partzuergoko eta Bilboko Metroko teknikariek taxutu duten etengabeko egitasmoaren barruan sartzen da. Plan hori Aginte-Mahai Nagusiaren egungo egoera eta hark hiri inguruko trenaren bizitzan zehar garatuz joan diren beharkizun funtzional eta eragiketa-beharkizun berriei eta teknologiaren etengabeko bilakaerari egokitzeko duen gaitasuna aztertu ondoren taxutu zuten. Horrela, azkeneko urte hauetan, ibilbide-orri honi jarraiki, etengabeko hobekuntzak gauzatuz joan dira, barbarako, AMNko urrutiko aginteak kontrolatzen dituzten softwarea eta hardwarea eguneratzea eta tokiko komunikazio-sarea berritzea.

Kontrol-zentro horretarako epe laburreko proiektuei dagokienez, bezeroei nasako zein "mezzanina"ko urrutiko adierazgailuetan zerbitzuari buruzko informazio adierazgarria ematen dien zerbitzaria aurki eguneratzeko asmoa du BGPk; halaber, bezeroaren arretarako eta segurtasunerako kontrol-gela ere berritu nahi du, 21 monitore berri eskuratuz.



ctb

bizkaiko garraio partzuergoa
consorcio de transportes de bizkaia

TRENBIDEA LURPERATZEKO LANAK URDULIZEN

Bizkaiko Garraio Partzuergoaren (BGP) organo erabakitzaileak gaur onetsi dituen gaien artean, azpimarratzeko modukoak dira Urdulizko trenbide-pasagunea ezabatzeko lanak eten barik jarraitzeko egingo diren hiru jarduketa.

Kontseiluak argi berdea eman die Euskal Trenbide Sareak (ETS) lizitaziora aterako dituen instalazio elektrikoei eta katenariari dagozkien proiektuei, 2,78 milioi euroko irteerako prezioarekin (BEZ barne). Instalazio elektrikoon aurrekontua 1.403.155 eurokoa da, eta honen barruan ondokoak sartzen dira: Urdulizko geltokian energia-transformaziorako zentroa taxutzea, banaketa-koadroak, sasiuneleko eta geltokiko argiak, suteen aurkako babes-sistema eta urrutiko agingailuak. Bestalde, sasiunelerako katenaria zurrun bat eta zerupeko bide-tarteko katenaria arrunta –bien artean 543 metroko luzera dutenak– hornitu eta muntatzearen gastu-aurreikuspena 1.376.803 eurokoa da. Azkenik, hirugarren kontratuan Sopela-Plentziako bide-tarteko seinaleztapen-sistema ere sartzen da; BGPk lizitaziora aterako duen kontratu horren aurrekontua 3,5 milioi eurokoa da.